

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Enpresa bat aurrera eraman ahal izateko, funtsezko baliabideak ezinbestekoak dira. BiziClean zerbitzuari dagokionez, gizartearen beharrak asko erreparatu genituen burutapen honekin topatu aurretik. Imajinazioan ere asko murgildu ginen, ez baikenekien garbigailua eta bizikleta nola batu. Azkenean sormenari emanaz, itxura ematea lortu genuen. Gure produktuaren funtzionamendua nolakoa izango zen oso argi genuenez, ezaugarri horiek beteko zituen enpresa bat bilatu genuen. Horretara heltzeko informatikari buruzko ezagutza apur bat izatea beharrezkoa izan zen.

Hasteko, Txinako enpresa bati bidaliko genion diseinua. Haien fabrikazioarekin amaitu ostean, gure lokalera bidaliko zuten eskaria. Gizartean arrakasta izango duela guztiz argi ez dugunez, ez genuen eskari handia egingo, galera handiak ez izateko. Hala ere, udaletxearen, unibertsitateen eta zenbait elkarteren diru laguntza xumea besterik ez genuen izango, beraz ezinezkoa izango litzaiguke inbertsio handia egitea.

Argi dugu, hasiera batean garesti xamarra irtengo litzaigukeela zerbitzu honekin hastea, baina denboraren poderioz, jendea geroz eta gehiago animatu eta irabaziak izango genituen.

Produktua, hots, BiziClean guztiz berritzailea izango denez, inork produktua kopia ez diezagun egile-eskubideak ezarriko ditugu hasiera-hasieratik.